

2010. "ADOUR-BIDASOA" XIX. MARGO LEHIAKETA

Irungo Udal Txit Gorenak 2010eko "ADOUR-BIDASOA" XIX. Margolan Lehiaketarako deialdia egiten du.

OINARRIAK

PARTE-HARTZAILEAK

1. LEHIAKETA honetan, nahi duen artista orok parte hartu ahal izango du, 18 urtetik gorakoak edo beteak 2010eko abenduaren 31n. Auzotasuna edo nazionalitatea ez da oztopo izango.

BALDINTZA TEKNIKOAK

2. Parte-hartzaile bakoitzak teknika eta gai libreko margo OBRA BAKARRA eta originala aurkeztuko du, beste inolako lehiaketatan saritu gabekoa. Obrak, lehentasunez, egilearen izenperik gabe eta atzealdean izenburua idatzita dutela aurkeztuko dira; azalean obraren izenburua idatzita izango duen kartazalarekin batera. Kartazalaren barnealdean egilearen izen-abizenak, helbidea eta telefonoa adieraziko dira. Lehiakideak, nahi badu, sar ditzake kartazalean berak egindako obren argazkiak. Nolanahi ere, sinatuta aurkeztutako obretan, sinadura estali egingo da, epaimahaia balioesten ari den bitarte osoan.

3. Obrak bastidore edo euskarri zurrunean muntatuta entregatu beharko dira, baina MARKORIK GABE. Ez da onartuko kristalez babestutako obrarik. Babestu beharra izanez gero, berriz erabiltzeko moduko bilgarriz egingo da.

4. Mihiseen edo aukeratutako materialaren tamaina ez da izango 89 cm baino txikiagoa eta 150 cm baino handiagoa, edozein alde neurtuta ere.

SARIAK

5. Honako hauek izango dira sariak:

- **LEHENENGO SARIA, 2.500** (bi mila eta bostehun) euroko saria, irabazleari emango zaio. Obra irabazlea Irungo Udalaren Margoen Ondarean geratuko da.
- **GAZTE ARTISTAREN SARIA, 400** (laurehun) eurokoa, artista gazteen (25 urtetik beherakoa, 2010eko abenduaren 31n) margolan onenari.
- **OHOREZKO DIPLOMAK**, epaimahairen aldetik aipamen hori jaso duten egileentzat.

Ezingo da jaso sari bat baino gehiago.

6. Sarien diru kopuruei PFEZ kenduko zaie, indarrean dagoen legearen arabera.

OBRAK JASOTZEA

7. Margo obrak 2010eko irailaren 7tik 12ra bitartean jasoko dira, AMAIA KULTUR ZENTROAN, A. Lopez Becerra kaletik sartuta, 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara, igandean goizez. Behar bezala betetako izenemate-orriaren ale bikoiztuarekin batera emango da; ale bat, zigilua jarri ondoren, egileari itzuliko zaio, obra utzi izanaren egiaztagiri.

8. Ospeko pertsonak osatuko dute Epaimahaia eta horrek aurkeztutako obren hautaketa bat egingo du. Lan hautatuak AMAIA KZn bertan urriaren 2tik azaroaren 7ra arte egingo den ERAKUSKETAN izango dira ikusgai.

OBREN ERABILERA

9. Saritutako obrak erabili ahal izango ditu Udalak, publizitatea, kartelak, katalogoak, etab. egiteko. Artistek baimena ematen diote Irungo Udalari obra horiek erreproduzitu eta banatzeko.

SARI BANAKETA

10. Urriaren 2an, larunbata, banatuko dira sariak, obra hautatuen erakusketaren inaugurazio egunean.

11. Udalak albait ongien zainduko ditu obrak bere esku dauden bitartean; hala ere, menturaz zerbait hondatuz gero, ez du izango kalte horien erantzukizunik.

OBRAK ITZULTZEA

12. Honako hauek izango dira margolanak erretiratzeko epeak:

- Obra ez hautatuak: 2010eko urriaren 31 baino lehenago,
- Obra hautatuak: 2010eko abenduaren 31 baino lehenago.
- Igorritako obrak garraiolariaren bitartez itzultzea nahi izanez gero, espreski eskatu beharko da. Itzultzeko gastuak interesdunaren kargu izango dira.
- Behin epea igarota, antolatzaileek ez dute izango eraman gabeko obren erantzukizunik, ez galdurik ez kalteturik gertatuta ere, eta nahi bezala erabili ahal izango dituzte.

ONARPENA

13. Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek guztiz onartzea dakar eta, orobat, epaimahaiaren erabakia onartzea. Era berean, ezingo da erreklamaziorik egin eta epaimahaiak ahalmena du aurreikusi gabeko arazoak erabakitzeke.

14. Oinarri hauek Irungo Udaletxeko iragarki-taulan ikusgai egongo dira, onesten diren egunetik hasi eta obrak aurkezteko epea amaitu arte.

INFORMAZIOA

- **HAZ/SAC** Hiritarra Atenditzeko Zerbitzuan. Tel: 010 // + 34.943.505.152
 - **Udalaren KULTUR Arloan**, Ospitale Zaharra, Urdanibia Plaza, 6. 20304 IRUN. Tel: + 34.943.505.407
 - **AMAIA Kultur Zentroan**, Aureliano López de Becerra kalea, Tel: + 34.943.004.628
- www.irun.org
E-mail: cultura@irun.org

Irun, 2010eko maiatza